


NAVARRISMOAREN JATORRIAK:

**XIX. MENDEAREN BIGARREN ERDIALDETIK EUSKAL NAZIONALISMOAREN
AURKA KONFIGURATU ARTE**

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

Xuban Zaldain Arribillaga

Historiako Gradua

2021-2022 ikasturtea

Tutorea: Javier Ugarte Telleria

Historia Garaikidea

Laburpena

Nafarroa historia luzea duen lurralde bat da. IX-X. mendetik XVI. mendearen hasiera arte erreinu propio bezala mantenduko da, epe luze horretan hedapen desberdinak izanez, eta XVI. mendearen hasieratik XIX. mendearen erdialdera arte, erreinu bat izaten jarraituko du, Monarkia Hispanikoaren barruan bada ere. Hori dela eta, erreinu zaharreko erakundeak galtzeak eta erreinu izatetik probintzia izatera pasatzeak, XIX. mendearen bigarren erdialdean, nafar izatearen inguruan ikuspegi desberdinak zabaltzea eragingo du. Horrela, planteamendu erreintegrazionistak dituen karlisten navarrismoa, 1841eko legea defendatuko duen liberalen navarrismoa eta batasuna helburu nagusi izango duen euskaroen mugimendua aurki ditzakegu garai horretan. Gamazada batasun momentu bat izanen da, baina “Nafarroaren iratzartzea”-k ez du asko iraungo eta XX. mende hasieran zatiketa berri bat emanen da, hein handi batean, euskal nazionalismoaren hedapenak eraginda.

XX. mende hasieran nagusi izango den giro euskaltzalea eta gero, 1917-1919 bitartean eraldaketa bat gauzatuko da navarrismoaren baitan, neurri handi batean, Garcilaso eta Victor Praderak gidatuta. Testuinguru sozial gatazkatsu batean mehatxu iraultzaileari aurre egitea lehentasun bat bihurtuko da. Hortaz, planteamendu erreintegrazionistak bigarren mailan utziko dira, momentu horretako lehentasuna eskuinaren eta Espainiaren batasuna bihurtuz, Errusian emandako iraultza moduko bat Espainian eman ez dadin. Euskal nazionalismoa, tartean, bere diskurtso erreakzionario eta integrista baretzen joango da autonomismoarengatik apustu egingo duen bitartean. Beraz, bizkaitarrak eta boltxebikeak bihurtuko dira konfiguratzeko joango den navarrismo horren etsai berriak. Amaiurko monolitoaren harira sortuko den 20. hamarkadako eztabaida historiografikoak bi nazionalismoen edo navarrismo-nabarrismoaren arteko tentsioak islatuko ditu, nazionalismo garaikideek jarduera historiografikoan duten eraginaren adibide izango den horretan. Eta II. Errepublikan eta Gerra Zibilean jada, bi indarren arteko behin betiko haustura emango da, gaur egun arte iraun duen binomioa finkatuta geldituz. Nolanahi ere, ikuspuntu nazionalistetatik mantentzen diren perspektiba esentzialistetatik aldentuz, identitate kolektiboen gaia askoz ere konplexuagoa eta aldakorragoa dela frogatzeko garai interesgarri baten aurrean gaude, banaketa hau eman aurretik, XX. mende hasieran, navarrismoaren, euskaltzaletasunaren eta espagnolismoaren konbinazioa izan baitzen ohikoena.

Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Nafarroaren ezaugarri historiko, geografiko, linguistiko eta sozio-ekonomikoen laburpen txiki bat	5
3. XIX. mendearen bigarren erdialdea: kontu forala eta euskal kontua eztabaidagai	8
3.1 Elementu forala: cuarentaiunismoa <i>versus</i> erreintegrazionismo forala	8
3.2 Euskal elementua: lehenengo batasun proiektuak eta euskal pizkundea	10
4. Gamazada (1893-1894): batasun momentua	12
5. XX. mendearen lehenengo herena: euskaltzaletasunaren momentu hoberenetik, navarrismo politikoaren konfiguraziora	13
5.1 Nafar eskuinaren euskaltzaletasuna XX. mende hasieran	14
5.2 Euskal nazionalismoaren hedapena Nafarroan eta honen eragina navarrismo foralaren konfigurazioan	17
5.3 1917-1919ko eztabaida autonomikoa: “navarrismo politikoaren baieztapena”	19
5.4 20. hamarkadako eztabaida historiografikoa: nafar <i>izatea</i> historia eta politikaren artean	22
6. Epilogo	24
7. Ondorioak	25
Erreferentzia bibliografikoak	27

1. Sarrera

Euskal Herritik kanpo, nafarra eta euskalduna edo “vasco”-a zarela esateak errandakoa behin eta berriz justifikatu edo arrazoitu behar izatea eragin dezake, bigarren mailako “vasco” bat edo “acomplejado” bat zarela entzun behar izateaz gain. Harridura soilik ere eragitea posible da, azken finean, Nafarroa eta “País Vasco” bi erkidego desberdin baitira. Egoera horiek lan honen egilearen kasuan behintzat maiztasunez eman dira, posible da bertze kasu batzuetan hori ez gertatu izana. Nola edo hala, hori izan da batasun eusko-nafarrarekiko oposizioa bandera nagusietako bat duen eta denborarekin Nafarroaren izaera euskalduna eta bertze euskal lurraldeekiko harremanak, kulturalki bada ere, maiz ukatu dituen Nafarroako ideologia identitario nagusia ikertzera eraman nauen hasierako arrazoa. Hori dela eta, aztertze hartu den epea, hain zuzen ere, navarrismoa eta euskaltzaletasuna bide desberdinak hartzen hasi ziren momentua izan da. Horrela, lan honen helburua gaur egungo navarrismoaren diskurtsoa, gutxi gorabehera, zein momentutan hasi zen, zein testuingurutan eta zergatik hobeto ulertzea izanen da, modu honez, navarrismoaren jatorriak eta osaketa aztertuz. Nolanahi ere, lan hau hurbilpen bat dela azpimarratu nahi da, epe kronologiko nahiko zabal bat hartu delako eta lan honetan tratatutako aunitz gaiak azterketa zehatzago bat eta azalpen luzeago bat eskatzen dutelako. Hala ere, hori kontutan izanda, planteatutako helburua betetzen saiatuko da.

Hau erranda, lanak izango duen egituraketa azalduko da. Benetan gaiari heldu aurretik, Nafarroako ezaugarri historikoen, geografikoen, linguistikoen eta sozio-ekonomikoen laburpen txiki bat egingo da. Uste baita lanean zehar azalduko diren eduki batzuk ulertzeko, hala nola, foruen inguruko gorabeherak, euskara, euskal nazionalismoaren arrakasta urria edo 20. hamarkadako eztabaida historiografikoa, komenigarria dela ezaugarri bereizgarri horiek, laburki bada ere, aipatzea. Navarrismoaren jatorrien azalpenean zentratuta, hasiera bat ezartzea zaila dela erran behar da. Navarrismo terminoa 1860. hamarkadarako jada erabilia izanen da eta Garcia-Sanzek azpimarratu duen bezala, navarrismoaren jatorriak askotan uste dena baino aintzinagokoak eta heterogeneoagoak dira, ideologia desberdinetako alderdiek bere burua navarrista bezala aldarrikatuko baitute eta bertze alderdiekin ea zein den navarristago edo nafarrago borrokatuko dute (Garcia-Sanz, 2012: 113-114). Hori dela eta, XIX. mendearen bigarren erdialdea hartuko da navarrismoaren jatorri

heterogeneoen hasiera bezala, eta epe horretan foruen inguruko eztabaidak izango duen garrantzia dela eta, 1841eko Foruak Eraldatzeko Legea hartuko da abiapuntu moduan. Horrela, XIX. mendearen bigarren erdialdean nafar politikan eztabaidatuena izango den kontu forala eta garai horretan gertatuko den euskal pizkundera azalduko dira, bide batez, garai horretako bi navarrismo mota nagusiak desberdinduz: karlista eta liberala. Gamazada izango den une bateko batasun momentua eta gero, XX. mendearen lehenengo herenean, XIX. mendearen bigarren erdialdean elkarren aurka ibili ziren bi navarrismoak batuko dituen navarrismo forala osatuko dela erran daiteke. Hala, lan honetan zehar konfigurazio hori azaltzen saiatuko da, hasieran planteatutako helburuari erantzun ahal izateko, garai horretan gehiago zentratuz. Horren kausak ulertzen saiatuko dira, nor izan ziren navarrismo horren konfiguradoreak, zein ezaugarri izan zituen eta zein testuingurutan eman zen aztertzeaz gain. Modu honetan, euskal nazionalismoaren hedapenak Nafarroan, navarrismo foralaren edo politikoaren konfigurazioan zein eragin izango duen tratatuko da, euskaltzaletasunak izango duen garapenari arreta jarritz. Historiaren trataerari ere azpi-puntu bat eskainiko zaio, 20. hamarkadako eztabaida historiografikoa eta historia eta politikaren arteko lotura komentatuz, ondoren, lanari bukera emateko, II. Errepublikan eta Gerra Zibilean gertatutakoak gaur egun arte izan duen garrantziari epilogo labur bat eskainiz.

Lana egiteko erabili diren iturriei dagokionez, Angel Garcia-Sanz, Iñaki Iriarte eta Fernando Mikelarenaren lanak azpimarratu behar dira, bereziki hiruek batean egindako *Historia del navarrismo (1841-1936). Sus relaciones con el vasquismo* liburua, zeina, ziur aski ere, navarrismoaren historiaren inguruan (1936 arte) egindako lan konpletoena den eta baita lan hau egiteko gehien erabiliko den liburua. Horrez gain, autore hauen bertze lan batzuk ere erabili dira, Iñaki Iriarteren *Tramas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra (1870-1960)* liburua kasu. Juan Maria Sanchez-Prieto eta Jose Luis Nievaren *Navarra: memoria, política e identidad* eta Xabier Zabaltzaren *Gu, nafarrok* liburuak ere aipagarriak dira, eta Fernandez Vigueraren *Garcilaso*-ren inguruko artikulua eta Cruz Minaren nafar hauteskunderen eta alderdien inguruko azterketa ere oso erabilgarriak izango dira. Edonola, jada aipatutako autore batzuen liburuen sarreran komentatzen den bezala, navarrismoaren sorreraren eta garapenaren inguruko lanak falta dira (Garcia-Sanz *et al.*, 2002: 14) eta nafar kasuaren berezitasuna, bere mugimendu identitarioen dibertsitateagatik, ez dago ongi ezagututa (Garcia-Sanz *et al.*, 2012: 25). Hortaz, navarrismoaren eta nafar identitatearen (edo identitateen, agian

hobe esanda) inguruan oraindik asko ikertu ahal dela erran daiteke, ikertzeko benetan kasu interesgarri bat izanez gainera, Nafarroa, tamainuz lurralde txiki bat den arren, oso lurralde desberdina baita bai geografia fisikoari dagokionez, baina baita identitateari edo nafar izateko moduari dagokionez ere.

2. Nafarroaren ezaugarri historiko, geografiko, linguistiko eta sozio-ekonomikoen laburpen txiki bat

Nafarroa hitza IX. mendearen hasieran agertuko da lehenengo aldiz iturrietan, karolingioen iturrietan, hain zuzen ere (778ko Orreagako guduaren harira), eta hitzaren esanahiaren inguruan hipotesi desberdinak daude (Jimeno Jurio, 1997: 24). Aurretik, baskoi hitzarekin izendatuko dira gaur egungo Nafarroako biztanleak, Aintzinaroko baskoniaren eta gaur egungo Nafarroaren mugak antzekoak izanik. Autore erromatarrek baskoien lurraldean bi eremu desberdin zituzten: *Saltus Vasconum* eta *Ager Vasconum*, hau da, iparraldea eta hegoaldea, mendia eta erribera. Hala, datu arkeologiko, linguistiko eta literarioek erakusten digutenaren arabera, *Ager Vasconum*ean erromatarren eragin kulturala eta bi herrien arteko harremana *Saltus Vasconum*ean baino handiagoa izan zen, geroago musulmanena izango den moduan¹.

Erdi Aroan, frankoen eta islamiarren mehatxuaren aurrean, baskoien entitate politikoa gisa, Iruñako Erresuma agertuko da eta zazpi mendez, gutxi gorabehera, erreinu propio bezala mantenduko da (XII. mendetik aurrera Nafarroako Erresumaren izena hartuko du). Hala, aipatzekoa da, navarrismoaren partetik, aspektu hori gogora ekartzea konstante bat izan dela bere historian zehar, Baskongadekiko desberdintasunak azpimarratu nahian (Garcia-Sanz, 2012: 115; Sanchez-Prieto *et* Nieva: 52). Aurrekoarekin jarraituz, Erresumak hedapen desberdinak izango ditu bere historian zehar, Antso Nagusiaren erregealdian (1004-1035) bere hedapen handiena izanez, Antso Jakitunaren (1150-1194) eta Antso Azkarraren (1194-1234) erregealdietan Errioxa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabaren galera garrantzitsuak emanez, konkista

¹ Iñaki Iriartek bi kontzeptu hauek erabiliz, *saltus* eta *ager*, Nafarroaren identitate historikoa ulertzeko erabili diren bi trama desberdinak ditu, lehenengoa, isolamendua, erresistentzia eta purutasunarekin lotuz eta bigarrena paktua, irekitzea eta kolaborazioarekin konektatuz (Iriarte, 2000: 103-133)

garairako gaur egungo Nafarroaren antzeko mugak izango dituen bitartean. Modu honetan, XVI. mendetik hona Nafarroaren mugak ia ez dira aldatu.

Garai honetatik ezagutzen dugun nafar lurraldearen ezaugarriak bereizgarriena dibertsitate geografikoa da, orografia, klima eta populatze mota aldetik desberdintasunak nabariak baitira iparraldea eta hegoaldearen artean, erromatarrek jada bere garaian azpimarratu zuten moduan. Horrela, baldintza geografiko horiek kontuan hartuta, egin diren nafar izaeraren inguruko deskripzioetan, bi nafar izaera, menditarra eta erriberatarra, desberdintzea oso ohikoa izan da, orokorrean zonalde bakoitzeko arketipoen deskripzioak egiterakoan, menditarrak erriberatarrak baino hobe geratuz (Iriarte, 2000: 368-379). Arlo linguistikoan, bestetik, iparraldearen eta hegoaldearen arteko desberdintasunak ere nabariak dira. 1587tik aurrera ditugun datuei esker, euskeraren eta erromantzearen hedapen orokorra ezagutu dezakegu. Horrela, garai horretan, euskara, Nafarroako hizkuntza nagusia zen, Erribera erromantzatua izan arren (nahiz eta bertan gutxiengo immigrante euskaldunak egon), Mendialdea eta Erdialdea euskaldunak baitziren. Edonola, mendetik mendera, euskararen galtze progresiboa izan zen, 1778 eta 1863ko datuek erakusten diguten moduan, euskararen hegoaldeko muga geroz eta iparralderago joanez, Nafarroako gutxiengo baten hizkuntza bihurtu arte².

Alde politikora itzulita, agramondarren eta beamondarren gerra zibila ondoren eman zen, Fernando Katolikoak gidatutako 1512ko konkista eta gero, Nafarroa, Monarkia Hispanikoaren parte izatera pasatu zen. Konkista ondoren egon ziren saiakera birkonkistatzaileak eta gero, harreman nahiko onak mantendu zituzten bi aldeek eta Nafarroak bere erreinu izaera kontserbatu zuen autonomia legegile, judizial eta administratibo zabal batekin, bere gorteak, fiskalitatea, muga-zerga politika... kontserbatzeaz gain. Hala, nafar eliteak eszenatoki berri horretan oso ongi integratu zirela dirudi, Monarkia Hispanikoaren barruan egoteak ematen zituen aukera berriak aprobetxatuz (Indietako Karrera, kasu).

XVIII. mendearen erdialdetik, nafar foruen aurkako erasoak hasi ziren Estatuaren aldetik. Konbentzioaren Gerran (1793-1795) borboien mesfidantzak areagotu egin

² 1567. urtean nafar populazioaren %65 inguruak euskeraz hitz egingo zuela kalkulatu da, 1778an nafar populazioaren % 53ak eta 1863an %30ak, XX. mendearen iritsierarekin portzentai hauek oraindik ere gehiago jaitsiz (Mikelarena, 2003: 192; Erize, 1999: 84)

ziren, nafarren ahalegin gutxiagatik eta frantsesek nafar gorteei egindako eskaintzengatik. XIX. mendearen hasieran, liberalen indarraren hazkundearen testuinguruan, tentsioek ez zuten gora besterik egin. Eta Lehenengo Gerra Karlistan liberalek izan zuten garaipena eta gero, 1841eko Foruak Eraldatzeko Legearen bitartez, Nafarroak bere erreinu izaera eta bere erakunde legegile eta judizialak galdu zituen, probintzia izatera pasatuz. Horrela, lege horren defendatzaileen eta erreintegrazio foralaren aldekoen arteko eztabaidek markatuko dute XIX. mendearen bigarren erdialdeko eta XX. mendearen hasierako nafar politika.

Sarrera atal honekin bukatzeko, nafar sozio-ekonomiaren inguruko ohar gutxi batzuk emango ditut. Nafarroaren XIX. mendeko eta XX. mende hasierako egitura sozioekonomikoak atzerapena izan zuen ezaugarri, batez ere, bere barride Gipuzkoa eta Bizkaiaren garapenarekin alderatzen badugu. Hala, hau gerora, argudio bezala erabilia izan zen eusko-nafar batasunaren aurkari zirenen partetik³, jada aipatutako Nafarroaren ezaugarri bereizgarri historiko-juridikoez gain, noski. Nafarroa, aipatutako epe kronologikoan, nekazal lurralde bat izan zen, batik bat, populazioaren gehiengoa sektore horretan arituz⁴ eta sektore industrialak pisu gutxi izanez. Demografia aldetik ere, hazkunde demografiko mugatua izan zuen⁵ eta emigrazioa gehien sufritu zuen lurraldeetako bat izan zen. Kulturalki, eliza katolikoak nafar gizartean zuen pisu handia aipatu behar da, XX. mende hasierako nafar gizartea, gizarte oso tradizionala izanez (García-Sanz *et al.*, 2002: 19-63).

³ Victor Praderak, 1919an adibidez, Nafarroa eta Baskongaden arteko batasunak “Bizkaiaren hegemonia” suposatuko zuela zioen, hots, nazionalistek nagusigoa zuten probintzia baten menpe egotea. Horrela, Bizkaia eta Bilborekiko menpekotasun posible hori, hauetatik urruntzeko argudio oso erabilia izan da (García-Sanz *et al.*,: 139)

⁴ 1930. urtean, adibidez, nafar populazioaren %66a lehen sektorean aritzen zen, Bizkaian %22a aritzen zen bitartean, Gipuzkoan %30a eta Espainian %52an. Bizkaia eta Gipuzkoaren kasuan populazioaren gehiengoa industrian aritzen zen urte honetan (*Ibid*: 44)

⁵ 1860-1930 bitartean, Nafarroak %2ko hazkunde tasa izan zuen, Gipuzkoak %8,9koa izan zuen bitartean, Bizkaiak %15,1koa eta Espainiak %5,8koa (*Ibid*: 45)

3. XIX. mendearen bigarren erdialdea: kontu forala eta euskal kontua eztabaidagai

Nafarroaren elementu bereizgarrien sarrera eginda, 1841. urtean emango zaio sarrera benetan gaiari. Nafarroaren estatus juridikoaren aldaketa (batzuentzat foruen erreforma, besteentzat foruen abolizioa) gertatu eta ondorengo hamarkadetan, navarrismoaren jatorriak aurkitu ditzakegu, 1841eko legearen inguruan ikuspuntu desberdinak izango dituzten navarrismoak desberdinduz (nolanahi, lan honek duen tamainu mugatua dela eta, errepublikanoen edo sozialisten navarrismoak ez dira tratatutako, horien izaera mugatua zela eta). Euskal elementua, hots, Nafarroaren euskalduntasuna eta Nafarroa eta Baskongaden arteko harremana, bigarren maila batean egongo da elementu foralaren aurrean, nahiz eta XIX. mendearen erdialdetik eztabaida gai garrantzitsua bihurtu, XX. mendean pisua irabazi eta II. Errepublikaren garaian eztabaida gai zentrala bilakatu (Garcia-Sanz *et al.*,: 71-73).

3.1 Elementu forala: cuarentaiunismoa *versus* erreintegrazionismo forala

Jada aipatu bezala, 1841eko Foruen Eraldatzeko Legeak Nafarroa probintzia bat gehiago izatea, erreinu izateari uztea eta erreinu zaharreko berezko erakundeak galtzea eragin zuen, Nafarroako Foru Aldundia eskumen ekonomiko-administratibo berezi batzuekin geratuz. Hau dela eta, tradizionalki, lege horren inguruko ikuspegi ezkor bat egon da Nafarroan eta erretorikoki behintzat, erreintegrazio forala lortu nahi izan da. Edonola ere, liberalak legearen defentsan bereizi egin ziren eta 40. hamarkadako lehenengo urteetatik geroztik legea itundu bezala izendatu zuten, horrela, bi botereen arteko pakto bat eman zela defendatuz.⁶ Garaiko nafar liberalen aldetik, urte horietan gauzatu ziren negoziazio eta eztabaidetan, Yanguas y Mirandaren protagonismoa azpimarratu behar da, zeinak iraultza liberalaren lorpenak defendatu zituen, liberalismoak Nafarroaren konstituzioa mantendu eta hobetu zuela azpimarratuz.

⁶ Hala ere, erratekoa da, berriki arte, 1841eko legearen izaera itundua autore nafar guztiek defendatu dutela dirudiela (autore batzuek lege honen inguruko ikuspegi askoz ere ezkor bat izan duten arren, Oloriz edo Campionen kasuan adibidez), beraz foruen inguruko irakurketa, Iriarteren “Ager” tramaren ikuspegitik egin dela, batez ere, esan daiteke, forua, Nafarroa eta Espainiaren arteko loturaren eta maitasunaren sinboloa izanez (Iriarte, 2000: 282-284)

Espekto politikoaren bertze aldean, karlistak, 1841eko legearen aurka egon ziren, liberalen garaipenaren ondorio bat izan zen heinean, eta erreintegrazio forala defendatu zuten. Horren adibide, karlistetatik hurbil zegoen Angel Sagasetaren ikuspuntua⁷ edo karlistek erreintegrazio foralaren promesak egin zituen 1841eko O'Donellen altxamendu moderatuari eman zioten babesak. 1868ko iraultza eta gero, foruen inguruko karlisten eta liberalen arteko desberdintasunak nabarmendu egingo ziren, beti ere, alde bakoitzak aurretik zuen jarrera berdina mantenduz (Garcia-Sanz *et al.*: 121-135). Hala ere, tradizionalisten aldarrikapen erreintegrazionistak erlijioaren defentsaren azpitik joango dira beti, Bigarren Karlistaldian gertatutako moduan (gerra horretan elementu foralak lehenengoan baino garrantzi handiagoa izan bazuen ere), zeinetan foruen aldarrikapena momentu zehatzetan bakarrik agertzen den (Mina, 2011: 274) eta gerora, Gamazadan adibidez, adierazpen erreintegrazionistak ez dira emango (Mikelarena, 2019: 625-626).

1841ean Nafarroak sufritu zuen “metamorfosiak”, Sanchez-Prieto eta Nievaren hitzetan (Sanchez Prieto *et Nieva*, 2004: 29), eta ondotik egon ziren eztabaidek nafar gizartean izan zuten eraginari dagokionez, erantzun bat ematea zaila den arren, eztabaida horiek nafar gizartearen goi-mailetatik kanpo eragin gutxi izan zutela dirudi. Edonola ere, foruak nafar identitatearen funtsezko elementu bat bihurtuko dira eta gerora foruen goraipamena indar handiarekin hedatuko da nafar gizartetik. Aski da ondotik azalduko den Gamazadak lortu zituen mobilizazio handiak aipatzea. Hala eta guztiz ere, kasu gehienetan, foruen goraipamena ez da foruen edukiaren ezagutza batekin lotuta egongo. Aspektu horretan, Zabaltzak, foruak eta euskara alderatzen ditu, biak ikurrak diren heinean, bi ikurren ezaugarri amankomun bat “haien izenean hitz egiten duten askoren jakintzarik eza” dela baita (Zabaltza, 2007: 54). Bertze hitz batzuetan, Mañeruko zinegotzi karlista batek erran bezala foruak “los cojones de Navarra” dira. Iriartek ere, euskararekin gertatzen den bezala, foruen kasuan, bere praktikotasunak baino, bere eduki sinbolikoak eta iragana eta oraina lotzeko duen gaitasunak garrantzi handiagoa duela erraten du, Olorizek erran bezala, Nafarroa eta foruak sinonimoak baitira (Iriarte, 2000: 278). Modu honetan, nafarren foruzaletasun sentimental eta pentsatugabe hori navarrismoaren garaipenaren kausa

⁷ 1917-1919 bitarteko eztabaida autonomistan, erreintegrazio foralaren aldeko karlistek, Angel Sagasetak foruen defentsan “Fueros fundamentales del Reino de Navarra y Defensa legal de los mismos” obran erabili zituen argudioak erabili zituzten (Mikelarena, 2019: 650-653).

garrantzitsuenetako bat izango dela azpimarratzen dute Garcia-Sanz, Iriarte eta Mikelarenak (Garcia-Sanz *et al.*, 2002: 73).

3.2 Euskal elementua: lehenengo batasun proiektuak eta Euskal Pizkundera

Nafarroaren izaera euskalduna 1866 urtetik gutxienez eztabaidatua izan da, unionismo modernoaren agerpena ematen den momentutik. Urte horretan, Nafarroako diputazioak Baskongadei hainbat arlotan kolaboratzeko deia egin zien, 4 lurraldeek partekatutako lotura historikoetan, hizkuntzan, tradizioetan, izaeran etab. enfasia ezarriz, eta hurrengo urterako jada eztabaidak aurki ditzakegu unionismoa defendatzen zuen Fructuoso Martinez eta horren aurka zegoen Cayo Escudero Marichalarren artean. 60ko hamarkada horretan, izan ere, XVIII. mendetik erabilia izana zen “Iurak bat”-en ordeztu, hiru probintzia baskongadoei erreferentzia eginez, “Laurak bat” erabiltzen hasiko da, gero euskarok “Zazpiak bat”-engatik ordeztuko dutena, iparraldeko hiru euskal probintziak ere sartuz. Bestetik, aipatzekoa da ere, XIX. mendearen bigarren erdialdean “País Vasco-Navarro”⁸ eta “provincias hermanas” hitzen erabilera oso ohikoa bihurtuko dela (Garcia-Sanz *et al.*,: 141-146).

Testuinguru horretan, 1877. urtean (Baskongadetako foruen abolizioa gertatu eta urte bat geroago), euskal-nafar batasunaren defentsa ezaugarrietako bat izanen duen Nafarroako Euskal Elkargoa sortuko da (“Asociación Euskara de Navarra” gazteleraz), Juan Iturralde y Suit, Arturo Campión, Estanislao Aranzadi, Hermilio de Olóriz, Nicasio Landa, Esteban Obanos eta bertze hainbaten eskutik. Europako herri desberdinetan, berezkoak diren ezaugarrien erreibindikazio politiko-kulturalak ohikoak izanen diren garai horretan, Nafarroan euskarok izanen dira erreibindikazio horien adierazle. Hala, mende luzez nafar herritarren elementu bereizgarri izan zen euskarak, XIX. mendean sufritzen ari zuen krisi eta atzeratze larriaren aurrean, euskarok Nafarroako Eusko Pizkundearen ordezkari izan ziren, euskararen defentsa izanez elkartearen helburu nagusienetako bat. Edonola ere, euskararen aldeko mugimenduek ez zuten interes handirik piztu herrian eta belaunaldi-krisia nabaria zen, gurasoek euskara jakin arren, gazteek etorkizuna gaztelanian zegoela pentsatzen zutelako⁹.

⁸ XIX. mende bukaerarako eta, batez ere, Gerra Zibilerako “País Vasco-Navarro” terminoa “Euskal Herria” eta “Euzkadi” terminoengatik ordeztua izanen da (García-Sanz *et al.*, 2002: 94).

⁹ Aspektu horretan, Zabaltzak, euskeraren kontrako zapalketa nazionala baino klasista izan dela aipatzen du, urte luzez, euskera jakitea eta erdera ez-jakitea gizarteko maila baxuenen estigma eta mespretxuen

Nafarroako Euskal Elkargoaren beste ezaugarrietako bat karlista eta liberalen arteko gatazkak gainditzearen nahia izan zen, erregenerazioa eta nafarren batasuna defendatuz. Hala ere, karlismoaren maskara izatearen kritikak jaso zituzten “El Navarro” egunkari liberalaren partetik, eta gerora elkarteko partaide liberalenek Elkargoa utziko zuten.

Izan ere, liberalen navarrismo “cuarentaiunista” izan zen euskaroekin kritikoen izan zen mugimendua. Prentsan aipatutako *El Navarro* egunkaria (1881-1884) izan zen, ziur aski ere, euskaroen aurka gehien mintzatu zen egunkaria. Hauen ezaugarrien artean eusko-nafar batasunaren aurkako oposizio sutsua, 1841eko legearen defentsa amorratua eta españolismoa leudeke. *El Arga* (1879-1881) eta *Lau-Buru* (1882-1886) egunkari euskaroekin ika-mika jarraituak izan zituen eta haiei egindako ohiko salaketetako bat separatista akusazioarena izan zen. Alderdi horretan, erratekoa da euskarok ez zutela bere burua separatistatzat hartzen, baina beraiek Espainia plural bat defendatzen zuten, aberri txikiaren eta aberri handiaren arteko harmonia, eta Espainiaren ikuspegi uniformeak kritikatzeko zuten. Edonola ere, haien artean sentsibiltate desberdinak aurkitzen zirela erran daiteke, Gamazadan paper oso garrantzitsua jokatu zuen Hermilio de Olorizen diskurtsoa adibidez, nahiko anti-gaztelarra izanez. Nola edo hala, 1886an, *Lau-Buru* egunkariaren desagerpenarekin, karlisten eta liberalen “zaticeta odoltsuaren” itzulerari egotzi ziotena, euskarok bozgorailu politikorik gabe gelditu ziren eta 1897 arte Elkargoa ez desagertu arren, hasieran izan zuten indarra ahultzen joan zen urtetik urtera¹⁰ (García-Sanz *et al.*, 2002: 149-167; Jimeno Jurío, 1997: 205-215; Sánchez-Prieto *et Nieva*, 2004: 147-177).

kausa izan baita, erdera jakitea behar-beharrezkoa izanez gizartean gora egiteko (Zabaltza, 2007: 67-68). Bestetik, Hobsbawm-ek, tokian-tokiko hizkuntzek erabilera handiagoko hizkuntzen aurrean protagonismoa galtzeak ez zuela herri xumearen aldetik erresistentziarik aurkitu aipatzen du, hizkuntzak erabiliago bat jakiteak, eta are gehiago idazten eta irakurtzen jakiteak, abantaila asko ematen zituelako, tokian-tokiko hizkuntza baten elebakar izatearen alloan. Hori dela eta, langileek eta nekazariak ez zuten nazionalismo linguistikoarekiko interes askorik erakutsi (Hobsbawm, 1990: 187-189), Nafarroan euskerarekin gertatu izanen zen moduan, ziur aski ere.

¹⁰ Euskarok izan zuten eraginari dagokionez, ikuspegi desberdinak daude. Hala, batzuek beraien eragina edo garrantzia gutxiesten duten bitartean (García Sanz *et al.*, 2002: 150-153), beste batzuek eragin hau nahiko erraz gutxiesten dela azpimarratzen dute, euskaroen eraginari garrantzi gehiago emanez argudio desberdinen bitartez (Sánchez Prieto *et Nieva*, 2004: 22; 311-314).

4. Gamazada (1893-1894): batasun momentua

Gamazada, Gamazo ogasun ministroaren aurrekontuen aurreproiektuaren aurka, Nafarroan, 1893ko maiatzatik aurrera altxatu zen mugimendua izan zen, aurrekontu horiek 1841eko legeak onartzen zuen autonomia fiskala murrizten zuela ulertu zelako. Aurreproiektuaren aurkako oposizioa ahobatezkoa izan zen Nafarroan eta Nafar Diputazioak berak zuzendu zituen protestak, manifestaldi garrantzitsuak emanaz probintzia osotik eta 110.000 sinadura bilduz, 300.000 biztanle inguruko lurralde batean. Hala, Gamazada, nafar gizartearen elementu kohesionatzaile bat izan zen. Gizarte nafarrak foralitatea ezaugarri bereizgarri bezala hartzeko prozesuan momentu erabakigarri bat izan zen, edo bertze hitz batzuetan, herria eta foruak aurkitu ziren momentua (Garcia-Sanz *et al.*, 2002: 167-169; Garcia-Sanz *et* Mikelarena, 1999: 103-105). Hori dela eta, “Gamazadaren errebultsiboa” izan zen Olorizentzat, Gamazada, lo hartuta zegoen Nafarroaren iratzartzea izan zen. Gamazadako gertakizunen garapena kontatzen duen “La Cuestión Foral”-ean¹¹, Olorizek, Gamazok desberdintasun politikoengatik aurrez aurre zeuden nafarrak batzea lortu zituela aipatzen du. Izan ere, hori zen historialari eta poeta nafarrentzat, baita euskaroentzat orokorrean ere, Nafarroaren legeak eta ohorea salbatzeko nafarrek bilatu behar zutena: batasuna eta abertzaletasuna, desberdintasun politikoen gainetik (Sanchez-Prieto *et* Nieva, 2004: 183-204).

Nolanahi ere, Gamazori esker lortu zen batasunak denbora gutxiz iraun zuen, hemendik gutira, XX. mende guztian zehar elkarren aurka ibiliko ziren bi korrante ideologikoen arteko ika-mikak hasiko baitziren, navarrismoaren eta euskal nazionalismoa edo nabarrismoaren artean. Hala ere, biek euskaroen legatua hartuko dute (bai nazionalisten bai navarristen gehiengoak euskaroen eragina onartuko du), nahiz eta batzuk osagai batzuei pisu gehiago eman eta besteek bertze osagai batzuei (Iriarte, 2000: 19-20). Bi mugimenduentzat, horrela, Gamazada gertakizun garrantzitsu bat izanen da, nafar sektore guztien mobilizazioak Gamazoren aurreproiektua geldiarazi zuen heinean, baina biek esanahi desberdin bat emango diote (Garcia-Sanz *et al.*, 2002: 170-172)

¹¹ Honen eranskin izango den *Cartilla Foral* liburuxka, zeinetan modu didaktiko batean, galdera eta erantzunen bidez, foruen defentsa bat egiten den, bere obren artean hedapen gehiena izanen duena izango da (Sanchez-Prieto *et* Nieva, 2004: 210 orr.).

“Nafarroaren iratzartzea” murrizta izan zen, berriro ere “nafar espirituaren” lo hartzea emateko, eta hau, “Gamazadaren errebulstsiboa”-k, Olorizek, azken urteetan idatzi zituen liburuen ikuspegi ezkorrean atzeman daiteke (Sanchez-Prieto *et Nieva*, 2004: 205-212). Bestalde, 1893an planteatu zen Foruen Monumentua bukatzeko egon ziren arazoak ere iratzartze horren itzaltzearen isla izan daitezke. Monumentua eraikitzeko dohainak ez ziren uste bezain handiak izan eta azkenean hamar urte beranduago, 1903an, bukatu zen oroigarria eraikitzeaz. Gainera, Foruen Monumentua ez zen inoiz inauguratu eta horren arrazoiak ezagutzen ez ditugun arren, plaketako inskripzioen inguruan sortu ahal ziren polemikak, zeinetako bi euskeraz idatzi ziren¹², zerbait ikusi izana posible da. Nola edo hala, erran bezala, Gamazadaren ezaugarri izan zen batasuna ez da XX. mende hasieran mantenduko eta mendeko bigarren hamarkadatik aurrera, batez ere, euskal nazionalismoaren eraginaren handitzeak erabat baldintzatuko du nafar politika (Garcia-Sanz *et al.*, 2002: 172-179).

5. XX. mendearen lehenengo herena: euskaltzaletasunaren momentu hoberenetik, navarrismo politikoaren konfiguraziora

XX. mendearen lehenengo herenean, egungo Nafarroako ideologia identitario nagusia den navarrismo foral kontserbatzailea, gutxinaka-gutxinaka, konfiguratzeko edo osatzeko joango da. Hala ere, gaur egungo ikuspegitik arraroa dirudien arren, mende hasierako navarrismoa euskaltzalea izango da, batik bat, prentsako adibide ugariak erakutsi ahal dituzten moduan. Izan ere, Gamazada ondoren, fuerismoak eta baskismoak Nafarroan haien momentu hoberenak biziko dituztela dirudi. Modu horretan, navarrismoaren historian zehar, ziur aski ere, bere ordezkari nagusia izan den mende hasierako *Diario de Navarra* irakurtzen badugu, egunkari horren adierazpen baskistak oso ohikoak direla egiaztatu daitezke. 1917-1919ko eztabaida autonomistatik aurrera, alabaina, baskismo hau indarra galtzen joan zen emeki-emeki¹³, izan ere prozesu honetan “jarreraren argitze” bat eman zela erran daiteke, geroago azalduko den moduan. Aspektu horretan, euskal

¹² *Diario de Navarra* egunkariak, 1903an, batzuek inskripzioak euskeraz idatzi nahi zituztela eta bertze batzuek gazteleraz informatzen du (Garcia-Sanz *et al.*, 2002: 177-178 orr.)

¹³ Hala ere, horrek ez du erran nahi hemendik aurrera navarristen adierazpen baskistak bukatuko direnik ezta are gutxiago ere, geroago azalduko den moduan.

nazionalismoaren indar handitzeak paper garrantzitsu bat jokatuko du. Horrela, euskaltzaletasunak espainolista izatetik eta Espainiarentzat arriskutsua bihurtzen hasten den momentutik, navarrismoak euskaltzalea izaterari utziko dio, gutxi gorabehera (Zabaltza, 2007: 84). Hala ere, Nafarroako euskal nazionalismoaren aspirazio independentistak nahiko mugatuak izan zirela erran ahal da, bere ezaugarri nagusia batasun euskal-nafarraren defentsa izanez, foruen defentsaz, euskararenaz, katolizismoarenaz... gain. Elementu foralari dagokionez ere, nazionalismoaren agerpenak orain arteko “bando erreintegrazionistaren” eta “bando cuarentaiunistaren” konposizioan aldaketak eragingo ditu. Karlisten eta kontserbadoreen zati batek, mehatxu nazionalistaren aurrean, poliki-poliki, “bando erreintegrazionistatik” liberalen “bando cuarentaiunistara” aldatuko dira, modu honetan, navarrismoaren joera desberdinak euskal nazionalismoaren/nabarrismoaren aurka batuta geratuz¹⁴. Bukatzeko, mendearen lehenengo herenean, 20. hamarkadan batez ere, bi korrante ideologikoen arteko talkek, eztabaida historiografikoetan ere berebiziko garrantzia izango dute, Amaiurko monolitoaren harira sortuko den polemika argibide den bezala, gerora II. Errepublikan emango diren eztabaida politikoetan, nazionalismoan arteko dialektika berdintsua emango baita.

5.1 Nafar eskuinaren euskaltzaletasuna XX. mende hasieran

Historikoki, baskismoaren, kontserbadurismoaren eta espainolismoaren arteko konbinazioa Nafarroan ohikoa izan da. Jada aipatu den bezala, XIX. mendearen azken hamarkadetan, liberalak eusko-nafar batasunaren aurka agertu ziren eta hauek izan dira beti Nafarroaren euskalduntasunaren aurka gehien agertu direnak (Iriarte, 2000: 352-354). XIX. mendeko 80. hamarkadan, *El Navarro* egunkari liberala izan bazen antibaskismo horren adierazle handiena, XX. mende hasieran, *El Demócrata Navarro* egunkariak hartuko du aurrekoaren ordezkoa. Egunkari horren ezaugarri bereizgarrienetako bat bere antinazionalismoa izango da eta nazionalismoa kritikatzear gain, jarrera euskaltzaleak erakutsiko dituzten egunkariak ere kritikatuko ditu (adibidez, *Diario de Navarra* egunkaria separatistatzat hartuko du) (Garcia-Sanz *et al.*, 2002: 215-224). Edonola ere, lehenengo atalean aipatu den moduan, garai horretako gizarte nafarra benetan tradizional eta katolikoa izanen da, hori dela eta, liberalek pisu gutxi

¹⁴ Nazionalistetatik gertuen egon zen alderdia, karlisten sektore erreintegrazionistena izan zen, jaimistena, 1921an bi alderdien artean eman zen Aliantza Foralak erakusten digun moduan.

izango dute mende hasierako Nafarroan, batez ere “bandera antiklerikala” altxatuko duten momentutik (Mina, 1985: 122), beraz antibaskismo horri ez zaio sobera garrantzirik eman behar. Izan ere, euskaltzaletasun kulturala izango da erregionalismo kontserbatzaile espainolistaren ohiko ezaugarria (Iriarte, 2000: 354).

Horren adibide, *Diario de Navarra* egunkari navarrista kontserbatzailea (maurista) eta 1912tik bere zuzendaria izango den Raimundo García *Garcilaso* ditugu. *Diario de Navarra* 1903. urtean sortuko da eta egunkari horren interesa hedapen handiena izango duen nafar egunkaria izatean datza. Nafar gizartean eragin ideologiko handiena izango duen egunkaria bihurtuko da eta baita nafar eliteen eta bere ideologiaren, hau da, navarrismoaren, komunikabidea. Horrelakoa da ideologiaren eta egunkariaren arteko lotura, zeina Iriarterentzat adibidez, euskal nazionalismoaren historia EAJ-rena bada, navarrismoaren historia, hein handi batean, *Diario de Navarrarena* dela erraten duen (Iriarte, 2000: 20). 1912. urtetik 1962. urtera egunkari honen zuzendari izan zen *Garcilaso*, zeinaren ideologia espainiar pentsamendu erreakzionarioaren barruan kokatu behar den, navarrismo politikoaren konfiguradoreetako bat gisa hartu behar da. Horrela, pentsamendu erreakzionarioan oinarrituta, *Garcilasok* gaitzaren indarren konspirazio bat planteatuko du ongiaren aurka, edozein gatazka soziopolitiko ikuspegi honen arabera planteatuz¹⁵. Ongia, alegia, ordena, jabetza, familia, erlijioa... eskuineko indarrek defendatuko dute (bera, beti, eskuineko indarren batasunaren alde agertuko da) eta borroka horren barruan, paper salbatzailea duten herri batzuk daudela azalduko du, hau izanez Nafarroaren kasua, zeinak tradizioaren esentzia duen Espainia barruan. Testuinguru horretan kokatu behar dugu 1917 arte *Diario de Navarrak* egingo duen elementu euskaldunaren defentsa. Izan ere, euskal elementua tradizioaren eta erreakzioaren sinonimo bezala ikusiko da eta euskaldunaren defentsa modernitatearen aurka egingo da. 1903-1917 bitartean, *Diario de Navarra* ez da euskal nazionalismoaren aurka mintzatuko, *Garcilasok* euskara defendatuko du euskal arrazaren elementu bereizgarri bezala, euskarokiko miresmen handia erakutsiko du, Campionek eragin handia izango du harengan eta Euskal-Erria edo País Vasco-Navarro

¹⁵ *Diario de Navarraren* fundazioaren arrazoia eta *Garcilasoren* obsesio handia langile mugimenduaren eta iraultza sozialaren mehatxuari aurre egitea izango da, hauek izanez gaitzaren indarren ordezkari garrantzitsuenak.

bezalako terminoak normaltasun osoz erabiliko dira¹⁶. 1917tik aurrera, ordea, jarrera aldaketa bat egongo da *Garcilasoren* eta egunkariaren ildo editorialean, euskal nazionalismoaren bira demokratiko-aurrerakoiak eta garaiko testuinguru konplexuak eraginda, gero azalduko den moduan (Fernandez Viguera, 1990: 215-232).

Indar tradizionalistei dagokienez, haien euskaltzaletasuna ere nabaria izango da. Edonola, lehenik eta behin, karlistek eta integristek Nafarroan zuten pisua komentatu behar da. Hala, 1891 eta 1923 bitartean, diputatuen kongresura joan ziren 117 diputatu karlo-integristetatik 48 Nafarroaren partetik joan ziren, eta 1901 eta 1916 bitartean, karlistek eta integristek diputatuen gehiengoa lortu zuten Nafarroan. 1916 ondotik, aldiz, minoritarioak bihurtu ziren. Horren arrazoia, Minaren arabera, karlo-integristak nagusi izan ziren urteetan eztabaida erlijiosoa lehen plano batean egon zela da. Baina 1916 ondotik, eztabaida erlijiosoa eztabaida sozial eta autonomikoarengatik ordeztua izan zenean eta gai horiekiko tradizionalistek izan zuten jarrera nafar eliteak eta Madrileko gobernuak zuen jarrerarekin bat joan ez zenean, karlo-integristek haien hegemonia galdu zuten (Mina, 1985: 114-117). Nola edo hala, XX. mende hasierako egunkari tradizionalistei erreparatuta (*La Tradición Navarra, La Avalancha, El Pensamiento Navarro*), horien guztien adierazpen baskistak nabariak direla antzeman ahal da. Euskararen defentsa adibidez, normaltasun osoz ikus daiteke. Nolanahi ere, adierazpen euskaltzale hauek, beti ere, espagnolismoarekin bat joango dira eta euskal nazionalismoa hedatu ahala, adierazpen antiseparatistak ere ugaritu egingo dira, karlisten artean sektore desberdinak egongo diren arren, 1919ko alderdiaren zatiketarako erakutsiko duen moduan (Garcia-Sanz *et al.*, 2002: 188-198).

Bukatzeko, Diputazioak eta Iruñako Udaletxeak erakutsiko duten jarrera baskista ere aipatu behar da. Diputazioak *Euskalerraren alde* kultur aldizkaria diruz lagunduko du, Iruñako Udaletxeak Eusko Ikaskuntza ere diruz lagunduko du, 1918ko Euskaltzaindiaren eta Eusko Ikaskuntzaren fundazioan Nafarroako Diputazioak, (Baskongadekin bat) parte hartuko du, Diputazioa unibertsitate eusko-nafar bat sortzearen alde ere agertuko da... (Garcia-Sanz *et al.*,: 208-209). Horrela, euskal

¹⁶ Egungo ikuspegitik horrek ere harritu ahal duen arren, Sabino Aranak asmatutako “Euzkadi” terminoaren aurrean, Euskal (H)erria terminoa nagusiki onartua izango da nazionalistak ez diren Nafarroako indar eskuindarren partetik, honen aurka, euskal nazionalismoak termino horrekiko ez du sobera estimu erakutsiko (Garcia-Sanz *et al.*, 2002: 88-89 orr.)

hizkuntzaren eta kulturaren aldeko ekimen desberdinetan erakunde nafarren partaidetza aintzat hartzekoa da. Hala ere, erran behar da, euskaltzaletasun hori beti kulturala izango dela. Politikoki, Gamazada ondoren, Nafarroako eta Baskongadetako diputazioen arteko harremanak bere momentu hoberenak bizi izan zituen arren, batasun proiektu bat aurrera eramateko aukeraren bat agertu zenean Nafarroa albo batera geratu baitzen beti. Horren adibide, 1913ko Mankomunitateen dekretuaren kasua, zeinetan Nafarroako Diputazioaren jarrera, Bizkaiako Diputazioaren mankomunitate euskal-nafar bat osatzeko proposamenaren aurrean, kasu gutxi egitea izan zen (Garcia-Sanz *et al.*; 252-255). Modu horretan, XX. mendean zehar egongo diren euskal-nafar batasun proiektu guztiek, arrazoi bat edo bertzea dela medio, porrot egingo dute eta euskaltzaletasun kulturalak ere, mende hasiera horretan bere momentu hobereana bizi ondoren, hemendik aurrera, gutxinaka-gutxinaka indarra galduko du.

5.2 Euskal nazionalismoaren hedapena Nafarroan eta bere eragina navarrismo foralaren konfigurazioan

XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran (Eusko Alderdi Jeltzalea 1895. urtean sortu zen, Sabino Aranaren eskutik), euskal nazionalismoaren eragina Nafarroan benetan urria izan zela ematen du. Integrismoaren sektore foruzalenetik atera zen Nafarroako euskal nazionalismoaren nukleo fundatzailea (Mina, 1985: p. 121) eta Ramon Goikoetxea “Iberoko ebanjelista” izan zen mende hasieran aldarri nazionalisten hedatzaile nagusia. Bere lan garrantzitsuena 1906. urtean argitaratutako “Ami vasco” liburuxka izan zen, zeinetan galdera eta erantzunen bidez aranismoaren printzipioak azalertzen ziren. Nolanahi ere, 1910ko hamarkada arte itxaron beharko dugu, hemendik aurrera, EAJ-ren egiturak Nafarroatik hedatzen hasteko. Hala, 1910. urtean Iruñako Euzko Etxea sortu zen, 1911an *Napartarra* astekaria agertu zen, 1917 eta 1923. urteen bitartean, Iruñako udaletxeko zinegotzien artean eta Gorteetako diputatuen artean ordezkari izatea lortu zuten jeltzaleek eta 1923. urtean “La Voz de Navarra” egunkari nazionalista sortu zen. Hori dela eta, Bizkaiarekin aldentuz, Nafarroan, nazionalismoa askoz ere gutxiago hedatu zen arren, hamarkada horretan bere eragina ugaritu egin zela erran daiteke (Garcia-Sanz, *et al.* 2002: 183-188).

Era honetan, nazionalismoaren hedapena Nafarroan mugatu izan bazen ere, horien eragina 1910ko hamarkadan hazten ari zela ikusi dugu eta horrek navarrismo politikoaren konfigurazioan ezinbesteko garrantzia izango du. Azken finean, gaur egun

ezagutzen dugun navarrismoa, batik bat, garai horretan osatuko da, euskal nazionalismoa agertzen den testuinguruan, eta hein handi batean haren aurka (Fernandez Viguera, 1990: 227). Nazionalismoaren agerpenak 1841 ondotik elkarren aurka ibiliak ziren bi bandoen konposizioa eraldatu egingo du. Nazionalismoaren fundatzailearen planteamendu independentista eta anti-espainolistek, Nafarroako euskal nazionalismoak moderazioa ezaugarri izan bazuen ere, bere aldarrikapenak erreintegrazio forala, Baskongadekiko anaitasuna eta euskal kultura bultzatzea izanez (Mina, 1985: 121), tradizionalisten eta kontserbatzaileen zati handi batek, gutxinaka eta modu isil batez, erreintegrazioa aldarrikatzen 1841eko legea defendatzera pasatzea eragin zuten. Bestetik, nafar eskuin ez-nazionalistan orain arte aipatutako aldarrikapen euskaltzaleekiko ere urruntze progresibo bat emango da (Garcia-Sanz *et al.*, 2002: 256-257). Modu honetan, liberalen navarrismoaren postulatuaren garaipena emango dela erran daiteke, azken batean, beraiek XIX. mendean defendatzen zuten “cuarentaiunismoa” eta eusko-nafar batasunaren aurkakotasuna egongo baitira garai horretan konfiguratu den navarrismoaren ezaugarrien artean. Hortaz, historian zehar egon diren navarrismoen artean, liberalena da agian, egungo ikuspegitik Garcia-Sanz, Mikelarena eta Iriartek egiten duten navarrismoaren definizioari hobekien egokitzen dena: *“El navarrismo... desde la perspectiva actual cabría definirlo como la defensa de esta comunidad en tanto que proyecto diferenciado de otras limitrofes, firmemente engarzado en España y fundamentado en su foralidad histórica. Asimismo, quizá su rasgo más característico sería su rechazo a la unión vasco-navarra y su énfasis en la pluralidad socio-cultural de la provincia”*, beraiek erraten duten moduan (Garcia-Sanz *et al.*; 13).

Gauzak horrela, euskal nazionalismoak Nafarroan benetako arrakastarik ez izanaren arrazoiaren artean (Nafarroako Euskal Elkargoaren sorreraren eta XX. mende hasieraren artean nagusitu zen giro euskaltzale hori egon arren), 1841eko legearen ezaugarri bereizgarriaz gain, aldarrikapen nazionalistak bere gain hartzeko eraldaketa burgesik ez egon izana komentatu behar da (Elorza, 1978: 12). Izan ere, jada lehenengo atalean erran bezala, XX. mende hasierako Nafarroa ekonomikoki atzeratuta zegoen eta sektore industrialak pisu gutxi zuen. Hori dela eta, nazionalismoaren sorterrian izan zen Bizkaian gertatu ez bezala, espainiar burgesia kontserbaitzalearekin identifikatuta zeuden nafar eliteek ez zuten politika nazionalistarik bultzatzeko interesik izan (Fernandez Viguera, 1990: 228). Gellner-en zakur isilaren parabolaren arabera, zaunka

egin ez duten nazionalismo potentzialen kantitatea, zaunka egin dutenena baino askoz ere handiagoa da (Gellner, 1983: 64), hain zuzen ere, hizkuntza bezalako desberdintasun “objektiboak” ez baitira aski mugimendu nazionalistak garatzeko eta desberdintasun horiei atxikitutako eliteen interes ekonomikoak, normalean gizarte industrialetan ematen direnak, beharrezkoak dira. Horrela, Zabaltzak, Nafarroa (baita hizkuntza pribatibo bat duten, baina industrializazioa berandu eman zen Espainiako bertze lurralde batzuk), Gellner-en zakur isilen artean sartzen du (Zabaltza, 2018: 162-165), nafar eliteek, nagusiki landatarra zen Nafarroan, ez baitzuten interesik izan nazionalismoa bultzatzen, jada aipatu den moduan.

Hau esanda, orain azalduko den 1917-1919ko eztabaida autonomistan, zeinetan erreintegrazio forala planteatuko den eta zeinetan nazionalisten presentzia jada nabariagoa izango den, azpi-puntu honetan komentatu diren nazionalismoaren hedapenaren ondorio batzuk argiago ikusiko dira, jarreraren argitze bat (García-Sanz et al., 2002: 255) eta navarrismo politikoaren baieztapena (Fernandez Viguera, 1990: 238) emanez.

5.3 1917-1919ko eztabaida autonomikoa: “navarrismo politikoaren baieztapena”

1917ko udaren eta 1918ko azaroaren artean eztabaida erreintegrazionistaren lehenengo zatia eman zen Nafarroan¹⁷, 1918 bukaeran emanez eztabaidaren momentu garrantzitsuena. 3.1 azpi-atalean azaldu den moduan, karlistak izan ziren XIX. mendearen bigarren erdialdean erreintegrazio foralaren aldarrikatzaile nagusiak. Edonola, garai hartan gertatzen zen bezala, XX. mende hasieran erreintegrazioaren defentsa katolizismoaren defentsaren azpitik egongo da (Mikelarena, 2019: 626). Hala, euskal nazionalismoaren hedapena Nafarroan hasten ez den arte (nazionalistek erreintegrazio foralaren aldeko apustu sendoa egingo dute) erreintegrazioari egiten diren erreferentziak oso urriak dira nafar egunkari karlistetan (Mina, 2011: 283). Hortaz, 1918an erreintegrazioaren alde karlistek egingo duten apustu sendoak

¹⁷ Aurretik, 1917ko apirilean, *El Pueblo Navarro* egunkari liberalak, martxoko hauteskunde probintzietan beraiek defendatutako hautagaiek irabazi ondoren, Tafallako Asanblada antolatu zuen erreformak bila. Bertan, jaimistek eta beraien garaiko aliatu romanonistek izan ezik, indar politikoguztietako kideek parte hartu zuten, nazionalistak barne, baina asanbladak ez zuen arrakastarik izan (García-Sanz et al., 2002: 228-234).

nazionalismoaren hedapenarekin eta nafar politikan izan zuten hegemonia galerarekin zerikusia dauka.

Eztabaida 1917ko uztailan hasiko da, Baskongadetako diputazioek, Kataluniako mugimendu autonomistan inspiratuta, Nafarroakoari erreintegrazio foralaz hitz egiteko gonbidatzean. Nafarroako Diputazioaren erantzuna, haien nahi autonomistak babesten dituen arren, proposamena errefusatzearena izanen da “*en atención a las dificultades notoriamente difíciles porque atraviesa la Patria*” (Mikelarena, 2019: 628-629). Izan ere, hilabete bat beranduago, sozialistek eta anarkistek babestutako greba orokor batek eztanda egin zuen Espainia osoan eta pixka bat beranduago Errusiako Iraultza boltxebikearen arrakastak alarma guztiak piztuko ditu (García-Sanz *et al.*, 2002: 257).

Egoera soziopolitiko gatazkatsu horretan *Garcilasoren* jarrera autoritario eta erreakzionarioak indartu egingo dira, Europa osoan ohikoa izanen den moduan. Garai hori baita, azken finean, eskuin autoritarioko mugimendu katoliko-korporatiboak eta mugimendu faxistak, sistema parlamentarioen ahultasunaren eta iraultza sozialistaren mehatxuaren aurrean, indarrez agertuko diren momentua (González Cuevas, 2005: 63). Testuinguru horrek, eragin nabarmena izango du foralitatearekiko eta euskal nazionalismoarekiko, *Diario de Navarra*ko zuzendariak, izango duen ikuspuntu aldaketan. Azken batean, Espainiaren batasuna sozialismoari aurre egiteko ezinbesteko bitarteko bat bihurtuko da eta elementu foralarekiko egunkaririk mantenduko den ikuspuntua, xede nagusiarekiko baldintzatuta egongo da¹⁸. Gainera, kontuan hartuta Lehen Mundu Gerrako neutralitatearen ondorioz garatu zen burgesiaren sektore batek hartu zuela EAJ-ren kontrola (Comunión Nacionalista 1916 bukaeratik, nazionalista erradikalenek EAJ markarekin jarraituko duten bitartean), eta hauek beraien interesei erantzuten zien bira demokratiko-aurrerakoi bat eman ziotela nazionalismoari¹⁹, *Garcilaso*, jada erreakzioaren sinonimo ez zen nazionalismoaren aurka, navarrismoa defendatzen hasi zen. Beraz, orain arte ez bezala, egunkaririk nazionalismoari aurre egiten hasiko da (oraindik ere kultural eta etnikoki Nafarroa Euskal Herriaren parte dela

¹⁸ Auzi forala auzi sozialaren menpe egongo da beti *Garcilasoren*gan.

¹⁹ Nazionalismoa sentsibilitate soziala erakusten hasiko da, bere diskurtsoa modernizatzen, integrismo erlijiosoa baretzen eta bando erreakzionariorik urruntzen. Hori dela eta, 1920ko udal-hauteskundeetako nazionalisten eta sozialisten aliantzaren zurrumurrua hedatzen hasten denean, *Garcilaso* sumindu egingo da.

zalantzan jarri gabe), politikoki, Baskongadetatik bereizitako proiektu politiko bat defendatuz Nafarroarentzat; nazionalismoen aurrean, Espainiaren batasuna tinko defendatuz eta mehatxu sozialistaren aurrean, erregionalismo katoliko eta unionistaren inguruan eskuinaren batasuna aldarrikatuz (Fernandez Viguera, 1990: 238-242). Hori dela eta, Minarentzat, *“el navarrismo político se explica más como una pieza del nacionalismo reaccionario español²⁰, del reforzamiento de la unidad española frente al separatismo para oponerse al internacionalismo revolucionario, que como una afirmación del hecho diferencial navarro”* (Mina, 1985: 123).

Eztabaida erreintegrazionistaren garapenera itzulita, 1918ko azaroan eztabaida berraktibatu egingo da. Azaroren 3an, nazionalistek, Manuel Aranzadi nafarra barne, 1839ko legearen indargabetzea eskatuko dute Kongresuan. *Diario de Navarraren* erantzuna eskakizun hori kritikatzeko izango da, Nafarroaren izenean nazionalistek zerbait eskatzeko duten legitimitatea kritikatu. Egunkariaren eta Aranzadiren artean piztuko diren ika-miketetan, zera esango da egunkaritik: *“Amigos de Vizcaya sí. Supeditados a ella o confundidos con ella no”*. Karlistek, bestetik, jada erran den moduan, erreintegrazioaren aldeko jarrera erakutsiko dute eztabaida honetan eta haien artean sektore erradikal bat bereiziko da, El Pensamiento Navarro egunkari karlistan idatziko duen “Fuerófilo” izeneko abokatu bat izanez haien ordezkari. Horrela, azaroaren 20an, karlistak gehiengoa ziren Iruñeko Udaletxean, 1839ko Legea indargabetzeko mozioa onartua izango da. Hilabete batean, 269 udaletxe nafarretatik 216 udaletxeek Iruñeko Udaletxearen eskakizuna babestuko dute, eta testuinguru horretan ospatuko da Diputazioak abenduaren 30erako antolatutako udaletxeen asanblada. Asanblada horretan, Victor Pradera, diputatu, preseski, karlistak, protagonismo berezi bat izanen du, baina ez karlisten sektore erradikalenaren ikuspuntuak defendatzen, baizik eta 1839ko legearen derogazioaren aurka mintzatuz. Praderak, erreintegrazio foralak Nafarroarentzat suposatuko zituen ondorio ekonomiko txarrak azpimarratuko ditu, nafar Gorteak ordezkari gaitza estamentalaren arabera gaur egun ezartzea ezinezkoa dela erranez eta Baskongaden eta Nafarroaren foruen artean dauden desberdintasunak adieraziz. Bere hitzek eragina izango dute eta asanbladaren

²⁰ Garcia-Sanzek hau zalantzan jartzen du eta navarrismoaren aurrekariak zaharragokoak eta dibertsoagoak direla azpimarratzen du, lan honetan egin den bezala, XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurkitu daitezkeen navarrismo mota desberdinen (liberalena, tradizionalistena, kontserbatzaileena...) garapena azalduz (Garcia-Sanz, 2012)

erabakia anbiguetatez beteta egongo da, erreintegrazio forala ez baita ukatuko, baina ez da 1839 eta 1841eko legeen derogazioaz hitz egingo. Bestetik, gaia aztertuko duen batzorde bat ezarriko dela aipatzen da, baina praktikan ez da ezer konkreturik egingo (Mikelarena, 2019: 631-642).

Modu honetan, laburbilduz, 1917-1919ko eztabaida autonomistak utzitako emaitzak aipatuko dira. Batetik, prozesuak utziko duen ondorioetako bat 1919an emango den karlisten zatiketa izango da (bertze kausa batzuez gain). Karlistak, “Acción Tradicionalista” (jaimistak) eta mellisten artean banatuko dira. Lehenengoan erreintegrazio foralaren alde eta elizaren doktrina sozialaren alde gehien agertu ziren sektoreak sartu zirela dirudi, Pradera eta bere jarraitzaileek, espagnolismoan eta eskuinaren batasunan enfasi gehiago ezartzen zuen “Centro Católico Español” osatu zuten bitartean. Praderak lehenengoiei “*jaimistas nacionalizantes*” deituko die, eta, hain zuzen ere, 1921an nazionalistek eta jaimistek Aliantza Forala osatuko dute (García-Sanz *et al.*, 264-265). Eztabaida horretan, bestetik, aurreko azpi-atalean aipatutako, kontserbatzaileen eta karlisten sektore baten bando aldatzea (erreintegrazionalismotik cuarentaiunismoa) argiago ikusiko da. Victor Praderaren (karlisten sektore horren ordezkari) eta *Diario de Navarraren* arteko hurbiltzea begi bistakoa izango da. Pradera navarrismoaren bertze bozeramaileetako bat bihurtuko da eta Campion gaudituko du *Garcilasorengan* eragina izatean. Horrela, eztabaida erreintegrazionista inflexio puntu bat izango da navarrismo foralaren konfigurazioan (García-Sanz et Mikelarena, 1999: 114), mellistek, mauristek eta integristek, *Diario de Navarrarekin* bat, beraienak egitean navarrismo politikoaren postulatuak (Mina, 1985: 123). Navarrismo horren etsai nagusiak bizkaitarrak eta boltxebikeak bihurtuko dira, Espainiaren batasuna navarrismoaren ardatzetako bat bihurtuko da (sozialismoari aurre egiteko bitarteko bezala) eta tradizionalismoaren eta ideia erreakzionarioenen defendatzaile bezala agertuko da, horren aurka agertzen diren ideiak “antiforal” bezala hartuz (Fernandez Viguera, 1990: 244-245).

5.4 20. hamarkadako eztabaida historiografikoa: nafar izatea historia eta politikaren artean

1918ko abenduaren 30eko asanbladako protagonista nagusia, ziur aski ere, Victor Pradera, izango da, hain zuzen ere, Amaiurko monolitoaren harira, Nafarroako konkistaren inguruan eztabaida historiografiko bortitz bat piztuko duen gizona.

Praderarekin, katolizismo politikoaren propagandista nagusietako bat: *”se acentuó la evolución del tradicionalismo hacia la defensa de la unidad nacional frente a los nacionalismos periféricos; la afirmación del regionalismo, el corporativismo social y la apología directa del golpe de Estado militar”* (González Cuevas, 2005: 79). Izan ere, Pradera, hasieratik, euskal nazionalismoaren aurka (eta nazionalismo periferikoen aurka, orokorrean) agertzeagatik bereiziko da eta foralismoa edo erregionalismoa izango da, nazionalismoen aurrean, bere alternatiba (González Cuevas, 2005: 80). Bera da, Sanchez-Prieto eta Nievaren arabera, Nafarroako erreakzio antinazionalistaren ordezkari hoberena eta baita eragin handienekoa ere (Sanchez-Prieto *et* Nieva, 2004: 251). Hortaz, Amaiurko defentsaren 400. urteurrenaren omenez, 1922an, *“A los últimos defensores de la independencia navarra”*, Amaiurren monolitoa bat eraikitzea proposatu zenean, Victor Pradera monolitoaren proiektua salatzea aterako da, 1921eko urtarrilaren 6an, Nafarroako Etxe Katolikoa inauguratzen zen egunean, *“Por Navarra, para España”* diskurtsoa botatzean. Bertan, agramondarrek espiritu nazionalista ordeztzen zutela adieraziko du eta traidoretzat hartuko ditu (Iriarte, 2000: 340-341). Modu horretan, hasiko da 1929 arte luzatuko den polemika, batzuek bertzeei erantzunez hainbat artikulua eta liburu argitaratuko baitira, hala nola, Praderaren *Fernando el Católico y los Falsarios de la Historia* edo Miguel de Orreagaren *¡Amayur...! Los últimos navarros...*

Eztabaida horretan Victor Pradera eta Arturo Campion (euskaro fundatzaileen azken ordezkaria eta garai horretarako euskal nazionalista) aurrez aurre ipiniko dira. Lehenengoa, Iriarteren, Ager tramaren ordezkari izango da, hau da, Nafarroako konkistaren aldekoa. Ikuspegi horren arabera, anexioa, populazio gehiengoaren nahia zen eta legalki sostengatuta dago. Bigarrena, aldiz, Saltus tramaren ordezkari izango da eta konkistarekin kritikoagoa. Hala, ikuspegi horrek atzerritarraren maltzurkeria eta jasandako errepresioa salatuko ditu²¹. Dena dela, polemika hori izango da nafar izatearen inguruan, Aro Garaikidean, egongo den eztabaida intelektual eta politiko nagusia²². Nolanahi ere, Campionen eta Praderaren irizpide historikoak guztiz

²¹ Edonola ere, autore gehienek ikuspuntua bi tramen artean dagoela dio Iriartek, konkistaren ondorioak onartuz, baina konkistatzeko erabili ziren bitartekoak salatuz (Iriarte, 2000: 348-349).

²² Nafarroaren historia garaikidean, nafar identitatean eragina izan duten momentuetan historialariak protagonista bezala agertu dira, kasu honetan gertatu zen bezala. Hori dela eta, nafar *izatea* historia eta politikaren artean eztabaidatu dela erran daiteke (Sanchez-Prieto *et* Nieva, 2004: 22, 56)

kontrakoak izango diren arren, aipatzekoa da biek ere printzipio historiografiko berdinetan oinarritu zirela: nazionalismo historiografikoan (Sanchez-Prieto *et Nieva*: 317-318, 227-232). Horrela, Garcia-Sanz, Iriarte eta Mikelarenaren eztabaidaren laburpena nazionalisten eta navarristen arteko borroka gordinaren irudikapena izan zela da (edonola, navarrismo guztia ez zela konkistaren defendatzaileen artean posizionatuko azpimarratzen dute²³) (Garcia-Sanz *et al.*, 2002: 120). *Diario de Navarra* izango duen jarrerari dagokionez, bere jarreraren erakusgarri da, Amaiurko monolitoan Espainiako armarrria jartzea eztabaidatuko denean, 1924an, errango duena: “*Que no sea el monumento de Maya un monumento a la Euskadi de los bizkaitarras, sino a la España, de los buenos navarros*” (Fernandez Viguera, 1990: 254). Izan ere, urte horietan zehar, egunkari navarristak edozein aitzaki erabiliko du nazionalismoari erasotzeko, 1917tik aurrera egindako jarrera aldaketari jarraituz .

Ondorio gisa, Amaiurko polemika, nazionalismo garaikideek jardura historiografikoan duten eraginaren adibide garrantzitsu bat dela erran daiteke. Eztabaida historiografiko honetan emango den nazionalismoen arteko dialektika, arlo politikoan, II. Errepublikan modu antzeko batean emango da, orain arte nagusi izan zen cuarentaiunismo-erregreazionismo dialektika ordeztuz (Sanchez-Prieto *et Nieva*, 2004: 248-254).

6. Epilogo

II. Errepublikaren aurretik, geroz eta izaera erreazionarioagoa erakusten ari ziren navarrismo berriaren ordezkariak, Víctor Pradera eta *Garcilasok*, Primo de Riveraren 1923ko kolpe-estatua eta 1930 arte luzatuko den diktadura babestu egingo dute²⁴ (Garcia-Sanz *et al.*, 2002: 273). II. Errepublikan jada, euskal-nafar estatutuaren

²³ Navarrismoak, orokorrean, Nafarroako konkistaren inguruan izan duen diskurtsoa anbigua izan dela erran daiteke, navarrismoaren baitan kontraesan bat baitago Espainiaren defentsaren eta aberri txikiaren iragan independentearen defentsaren artean (Garcia-Sanz *et al.*, 2002: 120-121). Hortaz, Iriartek, navarristek konkista azaltzeko tragedia erabili dutela aipatzen du, genero honen erabilera egokia izanez iragan independente baten oinordeko sentitzeko, orainean irtenbide independentista bat bilatu gabe. Azken batean, tragediaren erabilerarekin soberaniaren galera sahetsezina zela kontatzen da (Iriarte, 2000: 349)

²⁴ *Diario de Navarra* tik Mussoliniren diktadura faxista eredu bezala jarriko da eta diktadura iristean “¡Ya era hora!” izango da egunkariaren titulua (Fernandez Viguera, 1990: 247)

inguruko eztabaidetan aipatutako nazionalismoen dialektika agerian geratuko da. Bertan, Victor Pradera eta *Diario de Navarra* (zeinetan 1929an egunkariaren zuzendariorde bihurtu zen Eladio Esparzaren papera azpimarratu behar den) estatutuaren aurka agertuko dira beti, argudio foral eta erlijiozaleen erabilpena oso ohikoa izanez. Garai horretan, katolizismoz eta espagnolismoz geroz eta kutsatuagoko navarrismo bat ikusiko da, espiritu nafarra, espainiarrarekin eta katolikoarekin lotzen dituen 1934ko Marcial Solanaren *Tradicionalismo igual a Navarrismo* lanean ikusi daitekeen bezala (Garcia-Sanz *et al.*: 291-295). Hala ere, bai Esparzak bai Praderak, estatutuaren aurka agertu arren, sentimendu identitario euskaldun bat partekatutako dute (izan ere, Praderak, Euzkadi higuingarriaren aurrean, benetako Vasconia maitatzen duela errango du) eta euskaltzaletasunaren arrastoak Gerra Zibila ondotik ere aurki daitezke (Iriarte, 2000: 359-361). Edonola, Gerra Zibilean, navarrismoak eta euskal nazionalismoak hartutako ibilbide desberdinek ((Nafarroak “bere semeak Espainiarengatik eta erlijio katolikoarengatik borrokatzea eramanez” (Iriarte, 2000: 235) eta nazionalismoak Errepublikari babestuz)), erabat baldintzatuko dituzte hemendik aurrera emango diren eztabaida politikoak (Garcia-Sanz *et al.*, 2002: 311). Navarrismoa eskuinari lotutako ideologia bat bezala geratuko da, euskaltzaletasunak geroz eta izaera ezkertiar bat hartuko duen bitartean, bien arteko urruntzea geroz eta handiagoa izanez. Hori dela eta, lan honetan, hein handi batean, aztertutako epe kronologikoan (XIX. mende bukaera-XX. mende hasieran), gaur egun, bai batzuek bai bertzeek ez dute interes handirik, batetik navarristen euskaltzaletasuna agerian geratzen delako eta bertzetik euskaltzaletasunaren eta euskal nazionalismoaren garai horretako izaera erreakzionario eta ultrakatolikoa ere atzematen delako. Hortaz, Iriartek adierazi moduan, inork hartu eta onartu ez nahi duen espazio ideologiko baten aurrean gaude (Iriarte, 2000: 22).

7. Ondorioak

Lanaren sarreran planteatutako helburua navarrismo foralaren diskurtsoa zein momentutan eta zergatik hasi zen ikertzea izan da, sarreran bertan aipatutako arrazoiengatik. Hala, sarreran planteatutako helburu hori abiapuntu izanda lan honetatik ateratako ondorioak aurkeztuko dira. Navarrismo forala XX. mendearen lehenengo herenean konfiguratuko da, 1917-1919 tartean, batik bat, baina bere jatorriak XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurki ditzakegu. Garai horretako liberalen navarrismoa

da, ziur aski ere, XX. mendean konfiguratuko denarekin ezaugarri amankomun gehienak dituena. Horiek defendatutako bi printzipio nagusienetakoak, behintzat: 1841eko legearen defentsa eta eusko-nafar batasunaren aurkako iritzia, bi navarrismoek partekatzen dituzten ezaugarriak dira.

Navarrismo foralaren konfigurazioa, XX. mendean, gatazka sozialen areagotzeak arazo soziala lehenestea eragingo duen testuinguru batean emango da. Nahi autonomista-erregirazionistak bigarren maila batean geratuko dira, geroz eta izaera erreakzionarioagoa erakusten joango den nafar eskuinarentzat. 1910. hamarkadan hedatzen joan zen Nafarroako euskal nazionalismoak, aldiz, erreintegrazionismoa izango du helburu nagusi bezala, bitartean, bere izaera erreakzionarioa baretzen joango delarik. Horrela, mehatxu iraultzailearen aurrean, eskuinaren eta Espainiaren batasuna banderatzat izango dituzten *Garcilaso* eta Victor Praderak, jada erreakzioaren sinonimo ez den euskal nazionalismoaren kontra, navarrismoa, honen aurkako ezkutu bezala erabiltzen hasiko dira. Hala, kontserbatzaile eta tradizionalistek (ez denek), XIX. mendean etsaiak izan ziren liberalen postulatuak onartu egingo dituzte (cuarentaiunismoa erreintegrazionaren aurrean, batez ere). Modu horretan, navarrismo guztia euskal nazionalismoaren aurka batuta geratuko da, Espainiaren batasuna bere ardatzetako bat bihurtuz eta, horrela, navarrismo foralaren konfigurazioa emanaz.

Era honetan emango da XIX. mende bukaeran eta XX. mendea hasieran Nafarroan nagusi izan zen eta navarrismoarekin eta espainolismoarekin bateragarria zen giro euskaltzalearen (arlotik kulturean) itzaltzearen hasiera, gerora II. Errepublikan eta Gerra Zibilean gertatuko denarekin are gehiago itzaliko dena. Zabaltzak erran moduan, "abertzaletasuna espainiartasunaren ukapenean oinarritzen da eta navarrismoak euskalduntasuna ukatzen du", bi ukoak elkar elikatzen diren bitartean, elkarren beharra baitute (Zabaltza, 2007: 107-108). Hortaz, epilogoaren bukaeran erran bezala, inork hartu ez nahi duen espazio ideologiko navarrista, euskaltzale, espainolista eta eskuindar baten aurrean gaude, eta zerbait hartzekotan soilik nazionalismo bakoitzari interesatzen zaizkion elementuak hartzen dira. Nolanahi, Garcia-Sanzek bere liburuaren hasieran erran bezala, askotan mantentzen den ikuspegi esentzialistaren gainera, zeinetan "*se vierte sobre el pasado el actual conflicto de identidades*", identitate kolektiboen gaia askoz ere konplexuagoa eta aldakorragoa dela erraten bukatu nahiko nuke lan hau (Garcia-Sanz, 2012: 25-28), alde batetik eta bertzetik entzun ahal ditugun diskurtso

sinplisten gaintik, gure iragana ulertzeko ikerketa sakonen beharra dugula azpimarratuz.

Erreferentzia bibliografikoak

- Elorza, A. (1978). *Ideologías del nacionalismo vasco 1876-1937*. L. Haranburu, Donostia.
- Erize, X. (1999). *Vascohablantes y castellanohablantes en la historia del euskera de Navarra*. Gobierno de Navarra, Iruña.
- Fernandez Viguera, S. (1990). “La ideología política y social de Raimundo García Garcilaso (1903-1929)”. *Príncipe de Viana*, 189, pp. 211-262
- Garcia-Sanz, A. eta Mikelarena, F. (1999) “Españolismo, vasquismo y navarrismo foral cambios y persistencias en la interpretación de la identidad navarra hasta 1936”. *Historia y política: Ideas, procesos y movimientos sociales*, 2 (Ejemplar dedicado a: Estado e identidades nacionales en la España Contemporánea), pp. 83-122
- Garcia-Sanz, A., Mikelarena, F. eta Iriarte, I. (2002). *Historia del navarrismo (1841-1936). Sus relaciones con el vasquismo*. Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruña.
- Garcia-Sanz (2012). *La identidad de Navarra. Las razones del navarrismo (1866-1936)*. Gobierno de Navarra, Iruña.
- Gellner, E. (1983). *Naciones y nacionalismo*. Alianza Editorial, Madrid.
- González Cuevas, P. C. (2005). Del impacto de la Gran Guerra a la dictadura de Primo de Rivera: la renovación del conservadurismo autoritario. In P. C. González Cuevas (Ed.) *El pensamiento político de la derecha española en el siglo XX. De la crisis de la Restauración al Estado de partidos (1898-2000)* (pp. 61-113). Tecnos, Madrid.
- Hobsbawm, E. (1990). *Naciones y nacionalismo desde 1780*. Editorial Crítica, Bartzelona.
- Iriarte, I. (2000). *Tramas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra (1870-1960)*. Biblioteca Nueva, Madrid.
- Jimeno Jurio, J.M (1997). *Navarra. Historia del euskera*. Editorial Txalaparta, Tafalla.

- Mikelarena, F. (2003). “La evolución demográfica de la población vascoparlante en Navarra entre 1553 y 1936”. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 92, pp. 183-197
- Mikelarena, F. (2019). “El debate sobre la reintegración foral y sobre su modo de implementación en Navarra en 1918-1919. La postura historicista de los fueristas radicales del carlismo”. *Historia constitucional: Revista Electrónica de Historia Constitucional*, 20, pp. 623-657
- Mina, M.C. (1985). Elecciones y partidos en Navarra (1891-1923). In M. Tuñón de Lara (Ed.), *La España de la Restauración. Política, economía, legislación y cultura* (pp. 111-132). Siglo XXI, Madrid.
- Mina, M.C (2011). El carlismo y los fueros. In *"Por Dios, por la Patria y el Rey": actas de las IV jornadas de Estudio del Carlismo, celebradas del 22 al 24 de septiembre 2010, en Estella* (pp. 251-292). Gobierno de Navarra.
- Sanchez-Prieto, J.M eta Nieva, J.L (2004). *Navarra: memoria, política e identidad*. Pamiela, Iruña.
- Zabaltza, X. (2007). *Gu, nafarrok*. Alberdania, Irun.
- Zabaltza, X. (2018). “¿Del “renacimiento” literario al nacionalismo vasco? Una comparación entre los territorios de lengua catalana y los de lengua vasca (1850-1900)”. *Historia y política: Ideas, procesos y movimientos sociales*, 39, pp. 141-170